

“Herriak erakutsi duen borondatea errespetatzeko” eskatuko die Bildu Hernanik beste alderdiei

■ Plataformak bilerak hasiko ditu partidu politikoekin eta enplazamendu bat egingo die: “Herriak erakutsi duen borondatea errespetatzea eta dagokigun ordezkartzaren jabe egitea”.

BILDU Hernanik hauteskundeetako balorazioa egin zuen atzo Udaletxean emandako prentsurrekoan. Plataformak adierazi du hauteskundeak gertatu diren baldintzetan gertatu izanak ematen diola benetako dimentsioa lortutako emaitzari. Bildu Hernaniren esanetan, ilegalizazioak, kanpaina normal egiterik ezak, botoak ofizialki baliorik gabeak izateak eta abar erakusten dute Bildu Hernaniri emandako botoa ez dela “boto simple bat, konpromisoa betetako botoa baizik”. Bildu Hernanik eskerrak eman dizkie baldintza horietan ere konfiantza erakutsi dieten guztiei.

“Dagokigun ordezkartza”
Aurrera begira, Bildu Hernanik beste alderdiekin bilerak hasteko asmoa du: “Herri honetako lehen indar poli-



Bildu Hernanik plataformak ostegun arratsaldean emandako prentsurrekoa.

tiko gisara, eta ardura hori geure gain hartuta, lehenbailehen hasiko gara beste alderdi politikoekin harremanetan, eta enplazamendu bat egingo diegu: herriak erakutsi duen borondatea errespetatzea, eta dagokigun ordezkartzaren jabe egitea”. Bildu Hernanik lortutako botoak legezkoak balira, plataformari 7 zinegotzi legezkoak.


Manuel Frailek irakurri duen komunikatuaren bidez, Bildu Hernanik esan du bapatean herri honetako ez-

ker abertzalea desagertu arazi egin nahi izan dutela, eta Hernanik gogor erantzun diola neurri horri bere botoaren bidez. Bildu Hernaniren esanetan, ilegalizazioa bultzatu dutenek ez dute kontuan hartu ezker abertzalea gizartearen txertatuta dagoela eta herri honen etorkizunean “ezinbestekoa” dela berarekin kontaktzea. Bildu Hernanik egoera berriaren aurrean erreflexio sakona eskatu zuen eta ez dedila alperrik galdu “urnek emandako lezioa”.

Pleno herrikoa, 13an
Bildu Hernanik Pleno herrikoa deitu du ekainaren 13rako herritar eta herriko eragileek egoeraren aurrean beren iritzia emateko. Era berean Udaletxean itxialdiak iragarri ditu 13 eta 14rako. Ekainaren 14an osatuko dira korporazio berriak eta Bildu Hernanik esan du “gure herriaren borondatea errespetatzea” aldarrikatuko duela: “Azken batean, egun horretan Hernanin gure herriaren zilegitasuna defendituko dugu”. □

Jose Morcilloren ustez PSE-EEK emaitza onak izan ditu, eta nabarmendu du ez duela “jarrera frentistarik bultzatuko”

■ Jose Morcillok esan du nahiago lukeela aukera elektoral guztiak aurkezteko modua izan balute, deontzako hobia izango zelako ■ Baina, gogoratu du zenbait plataformek aukera hori izan dutela.



Jose Morcillo (PSE-EE)

PSE-EEK egin du hauteskundeetako emaitzen balorazioa. Jose Morcillok Kronikari adierazi dionez Partidu Sozialistak emaitza onak lortu ditu Hernanin: “Lau zinegotzi atera ditugu eta 1999an baino 150 boto gehiago atera ditugu, beraz, gustora egoteko datuak dira” esan du PSE-EEKo kandidatuak.

Jose Morcillok nabarmendu du berak nahiago izango lukeela joera politiko guztiak hauteskundeetan aurkezteko

aukera izan balute, “denentzako izango zelako hobia eta sektore batek baztertuta sentitzeko inongo justifikaziorik izan ez zezan”. Baina, era berean, Morcillok gogoratu du izan direla “aurkezteko aukera izan duten 25 plataforma ere”.

Gobernuan sartzeko prest
Aurrera begira, Jose Morcillok bi gauza azpimarratu ditu: batetik, garbi utzi du ez duela “inongo jarrera frentis-

tarik” bultzatuko herrian. Bestetik, berriz, PSE-EEKo zerrenda buruak Kronikari adierazi dio hauteskundeetara Hernanin gobernatzeko asmoz aurkezte zirela, baina, gobernatu, herriari ongizatea eman, eta elkarriketa eta pakearen alde lan egiteko. Zentzu horretan, Morcilloren esanetan Joan Rekondori dagokio Udal gobernu osatzeko pausoak ematea, baina, Partidu Sozialista prest dago berriz ere gobernuan sartzeko. □

ELUR-TXORI

Leitzara ibilia bihar

ELUR-Txori elkarteak antolatuta, urtero bezala Hernaniko jende koadrila dezentea Leitzara joango da mendiz bihar. Plana da goizeko 05:00etan Hernanitik atera eta 12:30ak alderako Leitzara iristea. Bidean gosaria eta hamaitakoa izango dituzte mendizaleek. Gero, Leitzara iritsi eta Gorritin izango dute bazkaria. Bazkal ondoan toka txapelketa izango da eta omenaldia egingo zaie 12 eta 25 aldiz ibilia egin dutenei. □

OSIÑAGAKO JAIK

Mus txapelketa gaur

DATORREN asteburuan Osiñagako jaiak dira eta gaur arratsaldean mus txapelketa hasiko da. Izen ematea 10 euro da eta partidak 16:00etan hasiko dira.

Bestalde, bihar, Jai Batzordeko jendea etxez etxe ibiliko da auzoan jaietako programa banatu eta festetako bazkarirako izenak hartzen. □

WATERPOLOA

Neskek partidu ona jokatu zuten, baina, ezin finalera iritsi

WATERPOLOKO nesken taldeak Euskal Herriko kopako finalerdia jokatu berri du. Eba Pastoren taldeak partidu ona jokatu zuen, baina, azkenean Hernanik 2-3 galdu zuen Leioaren kontra eta ezin izan zuen finalean sartu.

Hernaniko neskek bikain hasi zuen partidua eta aurreneko denboran 2-1 irabazten hasi ziren, Eba eta Yoli Pastorek gol bana sartuta. Bigarrenean galdu antzean ibili ziren eta leioarrek hor erabaki zuten partidua 0-3-ko partziala eginda. Hiru eta laugarren denborak husna bukatu ziren. Jokalariak: Pescador, Lertxundi, Garcia, Estibariz, Izagirre, Garcia, Zabala, Etxeberria eta Pastor ahizpak. □

GALARRETA JAI-ALAI!

Ostegun, larunbat eta igandetan jaialdiak
GAUR 16:00 ETATIK AURRERA
ERREMONTE JAIALDIA:

1. partidua: Matxin IV - Lander / Juaristi - Gaztelu
2. partidua: Altuna II - Eizagirre / Zeberio II - Iriarte
3. partidua: Agirresarobe-A. Lekunberri / Bereziartua-Aizpuru
4. partidua: Iribarren - Urretabizkaia / Sarasua - Mendizabal

IRUBIDE JATETXEA

Epele auzoa 7 - HERNANI
☎ 943 552 480
Mobila: 667 208 702

Telemar Itxastele, S.L.

"Plan renove" 89 eurotik.

Aldatu zure Activa 89 eurotik aurrera.

Telemar Itxastele - Elkano kalea 13 - Tel.: 943 55 33 99 - 943 33 00 60



Juan Mari Larrarte proiektu berria azaltzen Biterin. Ikastaro gela bete egin zen.

Egunkari berria ekaina bukatzerako katean izatea nahi da Juan Mari Larrartek Biterin esan zuenez

■ 50 eta 300 euroko akzioak salgai daude, eta helburua da 5 milioi euro ateratzea.

EGUNKARI berriari buruzko xehetasunak eman zituen Juan Mari Larrartek lehengo ostegunean Biterin. Proiektu berria 3 arlotan banatu zuen:

1) **Egunkaria bera.** Asmoa da ekaina bukaerarako katean izatea. Eguneroko egunkari berriaz gain 2 gehigarri izango ditu: bata larunbatean eta bestea igandeetan. Hortik aurrerako aldaketa eta berrikuntzak urriaren egitea nahi da Larrartek esan zuenez "Egunkari berriak 2 jaiotzealdi izango ditu, bat ekainean eta bestea urrian".

2) **Internet.** Egunkariak lehen egiten zuten interneteko bertsiorez gain, edizio jarraitua ere

izango du web berriak. Hau da, notiziak gertatu ahala sartuko dira interneten.

3) **Eskualdekako egunkariak.** Larrartek esan zuenez eskualdekako egunkariak sortu eta indartzeko asmoa du Egunkariak. Tolosaldean martxan da dagoeneko, eta ekainean Oarsoaldean kaleratzekoa da. Aurrera begira, beste eskualdetan ere ateratzeko asmoa badela esan zuen Larrartek.

Independientea eta plurala
Proiektu berria independientea eta plurala izateko bideak jartzea da asmoa eta horretarako jabetza ere zabal

izatea komeni da Larrartek nabarmendu zuenez "jabetzak zabala behar du eta hori bermatzeko kapitalaren % 1,2 baino gehiago ezingo du enpresa edo pertsona berak jarri". Instituzioek, berriz, akzioetan ez, laguntza bidez lagundu lezakete.

50 eta 300 euroko akzioak salgai daude proiektu berriari lagundu nahi dioten herritarrei eta enpresek laguntzeko. Larrartek aurkezpen bukaeran eskerrak eman zizkien orain arte laguntza eman duten herritarrei eta dei egin zien hernaniarrei dirua ateratzeko kanpaina honetan parte hartu dezaten. □

'Uda Gaztea' udalekuetan izen ematea zabalik

■ 12-16 urte bitarteko gazteek piraguismoa, arrauna, pala, mendia, eskalada eta abar egiteko aukera izango dute ■ Udalekuak uztailaren 14tik 24ra dira.

ONGINTZAKO Kale Hezitzaileek aurten ere hamar eguneko udalekuak antolatu dituzte uztailerako. *Uda Gaztea* programa DBH egiten ari diren gazteentzat da eta udalekuetan egun osoko ekintzak egiten dira, goizeko 10:00etatik 19:00etara.

Uda Gaztea programak aukera zabala eskaintzen die gazteei eta aurten ere 16 ekintza ezberdin egin eta gozatzeko modua izango dute: Piraguismoa, surfa, tiroa arkuarekin, eskalada, tailerrak, buzea, arrauna, golf, bolei-plaia, bolei-board, pala, snokel, perkusioa, piztina, senderismoa eta *vivac*-a.

Ekintza gehienak egun bakarrekoak izango badira ere, egun pare bateko ateha ere prestatua dute Kale Hezitzaileek, gaua kanpoan pasatuaz. Ekintza bakoitza noiz eta nola izena ematen dutenekin zehaztuko da. Izena emateko lekua: Sandiusterrri behea. Telf: 943-557790 edo 655720443 (16:30etatik 17:30etara, Mainer edo Ikerren galdera egin).



Uda Gaztea Udalekuetan ibilitako talde bat, aurreko urtean.

UDA GAZTEA 2003 EKINTZAK

Piraguismoa, Surfa
Tiroa arkuarekin,
Eskalada, Tailerrak,
Buzea, Arrauna,
Golf, Bolei-playa-
Bolei-board, pala,
Snokel, Perkusioa,
Piztina, Senderismoa
eta 'Vivac'

OIALUME
BILTOKIA

Igande eta jaiegunetan
dantzaldia, 19,30etatik
Bihar: Triki ta Ke
'Bizipen gose' disko
berriaren aurkezpena
OIALUME BILTOKIA



Oialume auzoa
943 55 29 38

KIROLA ASTEBURUKO PARTIDUAK

ERRUGIA	Taldeak	Non	Noiz	PELOTA	Taldeak
Lagunarte	Itun Tomeoa	P. Irujo	Gaur 16:00	Herriarte	Gaur, 18:00etan
Infantilak	Hondartza T	Zarauz	Gaur 10:30	Kadete	Azpilarte-Gomobategi A
PELOTA				Jubenilak	Ametza-Otegi A
Palea gomabateketa	Kirol	Bihar 12:00		Nagusiak	Emozionea-Mendizabal A

■ HITZ BITAN

✓ ESKOLA KIROLA

Herri kirolak eta Boleibola. Alebinek boleibol torneo azkarra jokatu dute gaur kiroldegian, 09:30etatik aurrera. Bi biren kontrako partidua motzak dira eta 40 bikotek eman dute izena. Guztira 49 partidua jokatu dira hasi 09:30etan eta 13:00ak arte. Horretarako 6 boleibol kantxa jarriko dira, hiru lehen pistana eta beste hiru bigarrenen. Benjaminek, berriz, herri kirolak dituzte, eguraldi onarekin Latsunbeko frontoian eta txarra bada kiroldegikoan. Herri kirolak 09:30etan hasiko dira eta 120 bat umek hartuko dute parte. Bestalde, infantiletan Langilek futbol sala partidua du Herri Ametsa taldearen kontra, gaur 11:45etan kiroldegiko bigarren pistana. Honenbestez bukatuko da Eskola Kiroleko aurtengo denboraldia, nahiz eta Axeri Bila proban ere zenbaitek parte hartuko duten.

✓ ZINEA BITERIN

La Prueba. Biterin La Prueba pelikula botako dute gaur eta bihar. Gaur, 19:30ak eta 22:30etan, eta bihar, igandea, arratsaldeko 19:30etan. □

I. URTEBETETZEA

Rosario Zabaleta Ezeiza

2002ko maiatzaren 16an hil zen

Rosarioren senitartekok, ezagutu zenuten guztioi gonbidapena luzatzen dizuegu, bere heriotzaren lehenengo urteurrenean eskainiko dugun mezara etor zaitezten.

Urtebetetze meza **bihar, igandea, ekainak 1**, goizeko 12:00etan, Floridako San Jose Obrero parrokiaren.

Hernanin, 2003ko maiatzaren 31n.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 006666
- ▶ Jokalari anonimoak: 943 331103

☎ FARMAZIAK

- ▶ Eguez: Bilbao-Sagastiberri Urbieta 7
☎ 943 552941
- ▶ Guez: Orue Lasarte. Jaizkibel plaza 2
☎ 943 362652

IRAGARKI MERKEAK

Pertsona bat behar dugu etxeko lanak egin eta bi haur zaintzeko (goizetan). Interesatuak deitu: **610 94 28 37**

Martxan dagoen okindegia alokatzen da Hernanin. Salmentak frogatu leizke. Interesatuak deitu: **657 79 29 48**



EASO - GBL.H.I.
POLITEKNIKOA



Felipe IV etorbidea 1-b DONOSTIA. Tel 943- 455422 Faxa 943 470022
E-posta: secretaria@ieaso.net

Eskaintza Akademikoa

EGUNEKO IKASKETAK

Batxilergoa (A eta D ereduetan).

Natur eta Osasun-Zientzien
Batxilergo Teknologikoa

Heziketarako Zikloak (A eta D ereduetan).

Erdi Mailakoak

Arotzerien eta Altzarien neurria egindako fabrikazioa eta instalazioa
Ekipa eta instalazio elektroteknikoak.

Goi Mailakoak

Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak
Mekanizazio bidezko Produktzioa.
Eraikuntza proiektuen garapen eta aplikazioa.
Arotzeriako eta altzarigintzako produktuen garapena
Ingurugiro kimika

Lanbide arriskuen prebentzioa (Berria eta bakarra Gipuzkoan)
(AENOR zertifikazioaren zain)

GAUEKO IKASKETAK

Heziketarako Zikloak

Erdi Mailakoak

Arotzerien eta Altzarien neurria egindako fabrikazioa eta instalazioa
Mekanizazioa

Goi Mailakoak: Proiektu mekanikoen garapena.

Izen ematea zabalik.

Hernanin 10.000 ibilgailu daude, familia bakoitzeko ia bi

■ Kotxeak 7.850 dira; motorrak 1.100 inguru; eta kamioi, autobus, traktore eta karga eramateko prestatuta daudenak 760.

■ 1.999 urteko datuekin konparatuta, ia 1.000 ibilgailu gehiago daude herrian, hau da, 4 urtean % 10 igo da kopurua.

■ Hernaniko jendeak lehenengo eskuko kotxeak erosten ditu gero eta gehiago; modelo txiki edo erdi tamainakoak, eta dieselak.

HERNANIN ibilgailu kopurua gora dioa urtetik urtera. 1.999 urtetik herrian 1.000 ibilgailu gehiago dauzkagu, eta gaur egun 10.000 ibilgailu izatetik oso gertu gaude (herri erdia baino gehiago). Kotxeen salmentak jarraitzen du, eta Hernaniko kontzesionarioetan esan digutenez, denbora izugarri dedikatzen zaio salmentari buruzko informazioa lortzeari: herriz herri ibilita, internetez, eta abar. Jendearen joera kotxe berriak erostekoa da; horien artean tamainardikoak nahiena, eta diesela, aukera izan ezker. Bigarren eskukoak oraindik asko erosten dira, eta gainera, egunez egun gehiago zaintzen dira kotxearen egoera eta saltzeko baldintzak.

Lehenengo eskukoa


Hernaniko kontzesionarioetan lehenengo eskuko kotxeak saltzen dira gero eta gehiago. Kontzesionario gehienetan esan digutenez, orain arte bigarren eskukoak ere eskari handia izaten zuten, baina, badirudi pixkanaka jeisten ari dela joera hori. Gaur egun, bigarren eskuko kotxeak urtebeteko garantia izaten dute eta tailerrean puntuan jarrita jartzen dituzte salmentan. Horrek bigarren eskukoaren prezioak igo egin ditu pittin bat.

Tamaina-erdikoa

Hernanin bost kontzesionario daude eta berak esan digutenez, gehien saltzen den modeloa tamaina-erdikoa da, nahiz eta, txikiak ere estimazio handia



Hernanin orain dela 4 urte baino 1.500 kotxe gehiago daude.



1999-2003 HERNANI

1999tik 1.500 kotxe gehiago daude. Beste ibilgailuak berdinean jarraitzen dute edo behera egin dute. Kamioiak adibidez, 800 gutxiago dira.

daukaten. Modelo salduenak, markaren arabera izango lirateke: Ford Focus eta Mondeo, Peugeot 307 eta 206a, Opel Astra eta Corsa, Seat Ibiza eta Cordoba, Volvo S40 eta S60a, Land Rover Freelander eta Discovery, Citroën Xsara eta Saxoa... Kotxe horiek dira prezio baxu xamarrean ekipamendu onenak ematen dituztenak. Hernanin gehiengoak kotxe horiek erosten ditu. Eskari hori da jenerala baina, hortik aterata, interesaren arabera izaten da eskaera: orokorrean, kotxe deportiboa gazteek erosten dute; monobolumena familia daukaten bikoteek; industrialak enpresek; eta gama oso altuko kotxeak kilometro asko egin behar dituenak.

Bestalde, dieselera jotzen du gehiengoak, kotxe berria erosteko orduan. Kotxe-etxe batean esan digutenez, "diesela garestiagoa da eta kilometro asko egin beharra dago amortizatzeko, baina, jendeak egunero gasolineran ordaintzen duenari begiratzen dio".

Kotxeak gora

Udaleko Errenta Zerbitzutik emandako datuek diotenez, Hernanin bi biztanleko ibilgailu bat dago. Datu honek nabarmen egin du gora azken lau urteotan: ibilgailuen artean kotxe kopuruak egin du nabarmen gora, eta beste ibilgailuak berdinean jarraitzen dute, edo jaitsi egin dira. Kotxeak 1.500 inguru gehiago dira 1999an baino, baina, kamioiak 800 bat gutxiago dira, orain lau urte baino. □

Ford Antziola-Motor
Salmenta eta tailer zerbitzua

Gogortasunaren forma berria

ford tourneo connect

Antziola auzoa 12 - Hernani
Tel.: 943 555772

SEAT ETA OPEL ZERBITZU OFIZIALAK

URUMEA Autoak - Auto HERNANI

- Kotxe berri eta aukerakoen salmenta
- Taller mekanikoa eta elektrizitatea
- Finantziak
- Karrozeria

Auto HERNANI
Akarregi auzoa 25 - 943 552546
URUMEA AUTOAK
Akarregi auzoa 25 - 943 332274

Gipuzkoarako eksklusiban
LAND ROVER
kontzesionario ofiziala.

EUROLAN 4x4 (VOLVO ondoan)
943 33 10 06

1977an sortua

motorrak **santi**

HERNANI

Elkano, 28 Tel. eta Faxes: 943 557730
20120 HERNANI

TAILERRAK

san juan txiki, c. b.

Automobil erreparazio generalak
Karrozeria

Portu, 7.zbk
Tel. eta Faxes: 943 550387
20120 HERNANI

SANTA BARBARA
PEUGEOT

Auto eta furgoneta zaharrak,
2. eskukoak aldatzen ditugu

Larramendi, 15
Tel.: 943 551139 / 943 551979

LUJANBIO
Autoelektrizitatea

- ▼ Elektrizitate konponketak ▼
- ▼ Bateriak ▼
- ▼ Irrati instalazioak eta abar ▼

Orkolaga kalea, 16 - 943 554596 - Hernani

CITROËN

ELKANO AUTOAK

JESUS MARIA ALFONSO LANDETA

Elkano, 33 20120 Hernani
Tel.: 943 557652 / Faxes: 943 336101

LARREA, C.B.
AVTO-ELEKTRIZITATEA

BOSCH SERVICE
FEMSA ELECTRO SERVICIO

Atzieta, 23
Tel./Faxes: 943 550904
20120 HERNANI

LANDARE C.B.
KARROZERIAK

Tel.: 943 550 487 Mobila: 659 775 811

Txapa eta Pintura
Bankada Unibersala
Labe Kabina

Florida Auzoa, 140 - 3.Pab
20120HERNANI

Hernanin jendeak txukun errespetatzen ditu kotxeari egin beharreko errebisioak

■ Hernaniko tailerretan mantenimendu lanak egiten dira gehiena ■ Guztira 25 bat etxe dedikatzen dira kotxe mundura.

HERNANIN 25 tailer inguru daude kotxeak konpontzera dedikatuta. Gehienak tailer normalak dira, hau da, *multimarka* deitzen zaienak edo, edozein kotxe marka konpontzen dutenak. Beste batzuk espezializatuta daude marka batean eta horiek kontzesionario bezala ere funtzionatzen dute, lehenengo eta bigarren eskuko kotxeak saltzen, hain zuzen. Motorrentzako tailer bat ere badago, kamioentzako beste bat, kurpiletara dedikatua beste bat, 6 karrozeria, desguaze bat eta txatarrerria bat.

Errebisioak eta elektrizitatea

Tailerretan errebisio lana egiten da gehiena. Olio, filtro, korrea edo kurpilak aldatzea; frenuak, enbragea edo junta kulata konpontzea; CO₂a kontrolatzea, airbaga jartzea eta abar. Mekanika edo elektronika lanak izango lirateke horiek, kotxea aberiarik gabe ibiltzeko beharrezkoak direnak, hain zuzen. Tailer horiez gain, autoaren elektrizitate lanak egitera ere dedikatu dira batzuk: argiak, bateriak, arrankea, irratia, leihoa irekitzekoa eta abar.

Ordenagailuaren arazoak

Kotxearen diagnostia edo azterketa egitea gero eta zailagoa da bere kasa dabilen mekanikoarentzat. Gaur egun gero eta elektronika gehiago ari da sartzen kotxe munduan eta begi hutsez harrapatzeko ez dira hain errezak gaurko aberiak. Horretarako ordenagailua erabiltzen dute tailer askotan.

Kotxe berri guztiek ordenagailu dakarkite barruan eta hor daramakite kotxeari buruzko informazio guztia. Horregatik, tailerretan beste ordenagailu bat konektatzen diote kotxeari eta harek ematen du aberiari buruzko informazio guztia.

Inbersio handia

Tailer txikiarentzat inbersio handia da ordenagailua ekartzea, baina, gero eta gehiago ari dira horretan. Gainera, elektronika bera ere aurreratzen joan ahala, ordenagailuak aldatu egin behar dira edo pertsona bat eduki behar da horren kargu egingo dena. Hala ere, tailer batzuk beste modu batean lan egitea erabaki dute. Batzuk kotxe zaharrak bakarrik konpontzen dituzte eta beste batzuk elektrizitate lanak egitera dedikatu dira. Badira, ordenagailurik gabe, kotxearen manualetik kotxearen diagnostia egiteko kapazak direnak ere.

Karrozeriak

Sei karrozeria daude Hernanin. Karrozeriak txapa eta pinturara daude dedikatuta eta asko, Hernaniko beste tailerrekin tratuan daude. Gehienbat, piezak aldatu egiten dituzte eta kolpe txikiak direnean konpondu ere bai. Oraingo txapa hobeto tratatua omen dago, eta ez da usteldu edo herdoiltzen lehen bezala. Pintura lanak ere egiten dituzte karrozerian. Pieza txikiak direnean pistolarekin aritzen dira pintatzen, baina, jeneralean labe edo kabina baten barruan pintatzen dira.

Desguazea

Dena dela, karrozeriek edo tailerrek konpondu ezin duten kasuetan, kotxea trafikotik erretiratu eta desguazera eramaten da. Desguazean kotxeari deskontaminazioa egiten zaio (bateria eta olioak kendu) eta piezak salmentan jartzen dira txukun-txukun apartatuta. Desguazean kotxearen zati guztiak erosi daitezke, seguritate arriskua izan dezaketenak kenduta (frenu pastilak, errotoak...). Hernanin desguaze bakarra dago eta herriko tailer gehienekin dauka harremana. □



Jendeak normalean errebisioa egitera eramaten du kotxea tailerrera.



Ordenadoreak

Ordenadorearena izugarriko iraultza izan da motorren munduan ere. Oraingo kotxe berriak elektronikaren bidez kontrolatzen dira. Kotxe marka bakoitzak bere sistema dauka aberiak detektatzeko, eta egunetik egunera eboluzionatuagoa dago teknika. Gaur egun, ordenadoreak esango digu motorren zein zatik failatzen duen edo zirkuituaren zein pieza aldatu behar den.

Hernaniko kontzesionario batean ordenagailuarekin kotxeari diagnostia egiten.

AITZEA
AUTOMEKANIKA

Tel.: 943 333 177 Faxa: 943 335 904
Mobila: 608 770 889

Zikuñaga Auzoa, 20 Nabel
20120 HERNANI

EUROTALIER

ANAIK
TAILER MEKANIKOA

Automobilaren
erreparazio generala

Neumatikoak
Direkzioak

Florida Auzoa, 52
Tel.: 943 557091
20120 HERNANI

Zapiain Autoak
Grua zerbitzua 24 ordutan

Gruaren mobila: 608 671010

Jauregi auzoa, 20
Tel.: 943 555110 - 943 557034
FAXA: 943 557034
20120 HERNANI

Kotxea urte askotarako nahi?

Kotxea itxura antzean mantentzeko edo aberia haundiagoren bat ebitatzeko, komeni da errebisio lanak tokatzen den garian egitea. Beti kontrolatu beharrekoak direnak: ur eta olio nibelak.

KEPA, s.l.
Karrozeriak

Txapa eta Pintura
Bankada Unibersala
Labe Kabina

Florida Auzoa, 56 2.pisua
33.lokala - Tel.: 943 550 404
20120 HERNANI

**IBILGAILUENTZAKO MEKANIKA
ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA**

EDUARDO DOMINGUEZ

Antziola Auzoa, 66 Atzekaldea
Taller tel.: 943 332 793
Etxeko tel.: 943 555 636
20120 HERNANI

LIZARRA
Automekanika

Pre-ITV
Olio aldatzea
Engrasea

Automobilaren erreparaziogeneralak

Zikuñaga entitatea, 61 - 3.Pab
Tel.: 943 556 771
20120 HERNANI (Gipuzkoa)

JUANTXO
TAILER MEKANIKOAK

Autodiagnostia

Atzieta kalea
20120 HERNANI

Tailer tel.: 943 556 910
Mobila: 687 522 740

ORCOLAGA
Tailerrak

Automobil erreparazio generalak

ALBERTO ARENALES

Orkolaga, 3
Tel.: 943 554894
20120 HERNANI